

# **KALEKO SALMENTARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**

## **HITZAURREA**

Merkataritzako establezimendu iraunkorretatik kanpoko salmenta oso erroturik dago Euskal Herriko udalerrietan. Gaur egun, hainbat arrazoi tarte, salmenta hori nahiko hedatuta dago eta ohiko dendetan egindako salmentaren ordezkoa edo osagarria baino askoz gehiago da.

Kaleko salmentak gero eta garrantzi handiagoa du eta, hortaz, beharrezkoa da zenbait neurri hartzea bermatzeko, batetik, jarduera horiek lehia aske eta leialaren testuinguruan egiten direla, eta bestetik, kontsumitzaileen legezko eskubideak zaintzen direla eta haien osasuna eta segurtasuna babesten direla, eskainitako ondasun eta zerbitzuen kalitatea ziurtatuta.

Asmo horrekin prestatu dugu kaleko salmentaren prozedura eta baldintzak araupetuko dituen Ordenantza hau; hori guztia, gainera, gaur egun indarrean dagoen araudiarekin bat etorritz egin dugu.

## **ATARIKO TITULUA**

### **1. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua.- Xedea**

Ordenantza honen xedea da Basauriko udalerrian kaleko salmenta araupetzea.

#### **2. artikulua.- Araubide juridikoa**

Kaleko salmentaren funtzionamendua eta administrazio-araubidea Ordenantza honek xedatutakoari eta aplikagarri den gainontzeko udal araudiari egokituko zaio. Arau honek aurreikusten ez duenerako, berriz, autonomia erkidegoko eta estatuko araudian xedatutakoa aplikatuko da osagarri gisa. Beraz, baimenen titularrak aipatutako araudiaren menpe egongo dira erabat, bai eta aplikagarri diren xedapen edo ebazpenen menpe ere.

#### **3. artikulua.- Kaleko salmentaren kontzeptua**

Kaleko salmenta izango da pertsona fisikoek nahiz juridikoek merkataritza-establezimendu iraunkorretatik kanpo usu edo noizbehinka egiten dutena, horretarako postu edo instalazio desmuntagarriak nahiz ibilgailuak erabilia. Kaleko salmentarako udal-baimena beharko da eta baimen hori besterenezina izango da.

Kaleko salmenta merkatu txikietan edota aurrerago aipatzen diren aldizkako zein noizbehinkako azoketan egingo da, baita sasoiko postu finkoetan ere. Edozein kasutan ere, beharrezkoa izango da derrigorrezko udal-baimena eskuratzea, hori gabe ezin izango baita inolako salmentarik egin. Zehazkiago, erabat debekatuta egongo da eskuz eskuko salmenta eta oihal gaineko salmenta. Noizbehinka, jaiak edota antzekoak daudenean, egokitutako furgonetetan edota ibilgailu berezietan janari prestatua eta edariak saltzeko baimena eman ahalko da.

## **II. KAPITULUA: KALEKO SALMENTA MOTAK**

### **4. artikulua.- Kaleko salmenta motak eta Udalaren ahalmenak**

1.- Hona hemen Ordenantza honen aplikazio-eremuari lotutako kaleko salmenta motak:

- a) **Aldizka egiten diren azokak:** Ohiko salmenta-postuen multzoak edota azoka berriak, toki zehatz batean egiten direnak asteko egun jakin batzuetan.
- b) **Noizbehinkako azokak:** Ondoko hauek izango dira noizbehinkako azokak: Basauriko espazio publikoko zenbait tokitan kokatutako salmenta-postuen multzoak, denboraldirako jartzen direnak artikuluko jakin batzuk saltzeko; herriko jaiak, gertakariak edota bestelako jaiak direla-eta aldi behin egindako azokak; udan egiten diren azokak; eta kirol-, kultur- zein jolas-gertakariak direla-eta antolatutako azokak, bai eta gertakariok iraun bitartean bakarrik egindako janari eta edari salmenta ere.
- c) **Denboraldiko postu finkoak:**
- d) **Kamioi-dendetan egindako salmenta**

Garraioari eta baimendutako produktuei buruzko arautegiak xedatutakoaren arabera egokitutako furgoneten edo ibilgailu berezien bidez egindako salmenta da. Salmenta mota honetan elikagaiak eta edariak baino ezin daitezke saldu eta halako salmenta baimendu ahal izango da jaietan eta aldi behineko azoka txikietan bakarrik.

Alkatetza-Lehendakartzari dagokio aldizkako eta noizbehinkako azoka txikiak jartzeko baimena ematea, denboraldiko postu berriak baimentzea eta sortzen diren auzi guztiak ebaztea. Era berean, Alkatetza-Lehendakartzak azoka txikiak kendu ahal izango ditu, horiek lekuz aldatu, postuen kopurua handitu eta txikitu ahal izango du, postuek hartzen duten azalera aldatu ahal izango du, bertan saldu daitezkeenak aldatu ahal izango ditu eta sortutako auzi guztiak ebatzi ahal izango ditu.

### **5. artikulua.- Baimendu gabeko kaleko salmenta**

Debekatuta dago edozein produktu edo salgai-mota merkataritza-establezimendu iraunkorretatik kanpo saltzea, Ordenantza honek jasotako modalitateetan aipatutako kasuetan salbu.

Ez da inolaz ere baimenik emango jarraian zerrendatutako jarduerak bide publikoan egiteko:

- Ibilgailuak, ondo aparkatuta badaude ere, bide publikoan erakusgai jartzea saltzeko, alokatzeko edo publizitatea egiteko xedearekin; eta horietan kartelak edota salneurria, telefono-zenbakia edo bestelako identifikazio datuak jasotzen dituzten beste elementu batzuk jartzea.
- Bide publikoan diruarekin edota ondasunekin apustu egitea dakarten jokoetan aritzeko eskaintza egitea.
- Tarota, igarletza, masajeak, tatuaiak eta antzeko zerbitzuak eskaintzea.
- Espazio publikoak modu desegokian erabiltzea dakarren beste edozein jarduera, gainontzeko erabiltzaileei espazio hori baliatzeko trabak jarri edota erabilera hori ezinezko bihurtuz.

## **6. atala.– Ekonomia erregimena**

1. Udalak finkatuko ditu kaleko salmenta egin ahal izateko baimena luzatzeagatiko tasak, bai eta kaleko salmentaren modalitate ezberdinetan egiten den lurzoru publikoaren erabilera pribatibo edota aprobetxamendu bereziagatiko baimena luzatzearen truke ordaindu beharrekoak ere.

2. Tasa aldez aurretik eta nahitaez ordaindu beharko da salmentan jardun ahal izateko.

### **III. KAPITULUA: ALDIZKAKO AZOKAK**

#### **7. artikulua.- Aldizka egiten diren azokak**

Basauriko udalerrian horrelako merkatuak egiten dira Uribarri kalean, astean birritan (asteazkenetan eta ostiraletan, 09:00etatik 14:00etara), agintaritza eskudunak ezarritako saltoki-kopuru eta produktuekin.

Azoka berriak, gehienez ere, astean bi egunetan baino ezin daitezke egin, agintaritza eskumendunak onetsitako egunetan eta orduetan.

Azoka txikiak 26 postu jartzeko gune seinaleztatua dauka.

### **IV. KAPITULUA: NOIZBEHINKAKO AZOKAK**

#### **8. artikulua.- Barazkien, fruten eta artisautzako produktuen noizbehinkako azokak eta azoka bereziak**

1.- Jaiak edo herri-gertakariak direla-eta, noizbehinka antolatutako azokak dira. Sailkapen honen barruan daude artisautza azokak; horietan baimenduta dago saltzen dagoen pertsonak berak edota beste batzuek egindako artisautza-produktuak saltzea, adibidez: larruzko eta zeramikazko produktuak, margoak, eskulturak eta bestelako apaingarriak.

2.- Ostalarien, merkatarien eta auzokideen elkarteek zein udalerrian ezagunak diren beste pertsona eta erakunde batzuek mota honetako azokak antolatu ahal izango dituzte.

3.- Erakunde antolatzaileak ondoko erantzukizun hauek izango ditu: salgai dauden artikuluen araberako sektoreko araudia betetzea, kasu bakoitzean exijitutako bermeen gordailua egitea, dagokion erantzukizun zibileko poliza sinatzea eta azokan parte hartuko dutenak banan-banan identifikatzea.

4.- Mota honetako azoketan derrigorrezkoa izango da udal-baimena. Baimenduta dago elikagaiak saltzea azokak dirauen bitartean, elikagai horiek debekatuta edo indarrean dagoen araudiak mugatuta ez badaude.

5.- Feria eta azoka bereziak dira antolatzaile pribatuek sustatutako merkataritzaguneak, udalerrian egiten direnak. Azoka horiek, orokorrean, herritarrentzat doakoak diren eta herriarentzat interes berezia duten jolas-jarduerei lotuta egoten dira. Edozein kasutan, aintzat hartuko da egingo dituzten jarduerak herriarengan zer-nolako eragina izango duten. Halakoetarako baimena, muntaiaren kalitateari eta egingo diren jarduerari lotuta egongo da. Eskabidean jasota egongo dira egingo den merkataritza-edo jolas-ekitaldiari buruzko xehetasun guztiak.

## **V. KAPITULUA: BIDE PUBLIKOAN SALTZEA POSTU FINKOETAN EDO POSTU DESMUNTAGARRIETAN**

### **9. artikulua.- Motak**

1.- Honako hauek hartzen ditu kaleko salmenta-mota honek:

- a) **Gozokiak, litxarrerria eta fruitu lehorrak.**
- b) Imitaziozko bitxi eta eskulanen postuak.
- c) Interes soziala duten objektuak eta argitalpenak saltzeko postuak.
- d) Zirkua, antzerkia eta bestelako ikuskizunak daudenean jartzen diren postuak.
- e) Berariaz loreak eta landareak saltzeko diren postuak.
- f) Tamaina txikiko kultur-objektuak eta bildumazaleentzako objektuak (txanponak, zigiluak, mineralak, eta abar) ikusgai jartzeko eta saltzeko postuak.
- g) Txurroak, gaztainak, frijituak eta loreak saltzeko denboraldiko postuak.

2.- Baimenek denboraldiak dirauena iraungo dute, postua jartzeko eta kentzeko baimendutako egunak izan ezik.

3.- Gaztainak saltzeko postuetan gaztaina bakarrik salduko dira eta haien denboraldia urriaren 15etik otsailaren 28 edo 29ra artekoa izango da. Gehienez, halako lau postu jartzeko baimena emango da eta Udalak erabakiko du horietako bakoitza non jarri.

4.- Izozkiak saltzeko postuetan freskagarriak eta alkoholik gabeko edariak ere saldu ahal izango dira. Horien denboraldia maiatzaren 15etik irailaren 15era artekoa izango

da. Gehienez, halako lau postu jartzeko baimena emango da eta Udalak erabakiko du horietako bakoitza non jarri.

5.- Txurro-dendetan txurroak, kauserak, gofreak, patata frijituak, ura eta alkoholik gabeko edariak saldu ahal izango dira. Horien denboraldia abenduaren 1etik otsailaren 28 edo 29ra artekoa izango da. Baimen bakarra emango da eta Udalak erabakiko du postua non jarri.

6.- Hilerraren inguruetan loreak saltzeko postuak jartzeko baimena emango da honako hauetan:

- Salmentarako postu bat urteko asteburu guztietan zehar, abuztuan izan ezik; eta lau egunetan zehar Domu Santuen sasoian.
- Gainera, salmentarako beste postu bi jartzeko baimena emango da aipatutako Domu Santuen datetan.

7.- Eskaerak aurkezteko deialdia urtero argitaratuko da Udalaren Iragarkien Taulan eta webgunean, honako epe hauetan:

- Gaztainen salmenta: irailaren 15etik 30era
- Izozkien salmenta: apirilaren 15etik 30era
- Txurro-dendak: azaroaren 1etik 15era
- Loreen salmenta: irailaren 15etik 30era, bai asteburuetako salmentarako, baita Domu Santuetarako beren-beregi baimendutako salmentarako ere.

. Aurreikusitako baimenak baino eskaera gehiago badaude, dagokion udal-atalak zozketa egingo du.

8.- Ez dira atal honen barruan egongo honako produktu hauek saltzeko diren postu desmuntagarriak:

- a) Egunkariak, aldizkariak eta aldizkako argitalpenak.
- b) ONCEko nahiz legeak aurreikusitako beste zozketa edo apustueterako postuak.
- c) Garraio publikorako txartelak saltzeko postuak.

9.- Berriaz baztertu ez diren gainerako suposamenduak kaleko salmentakotzat hartuko dira.

10.- Egunkariak, aldizkariak, ONCEren kupoiak eta aldizkako argitalpenak saltzeko postuak berriazko araudian ezarritakoaren arabera araupetuko dira.

## **10. artikulua.- Salbuespenak**

Ez dira kaleko salmentatzat hartuko:

- a) Etxez etxeko salmenta
- b) Urrutiko salmenta
- c) Aldian behineko salmenta

d) Horretarako prestatutako makinen bidezko salmenta

## **VI. KAPITULUA: DENDA-KAMIOIEN EDO FURGONETEN BIDEZKO SALMENTA**

### **11. artikulua.- Deskribapena**

1.- Garraioari eta baimendutako produktuen salmentari buruzko arategiak xedatutakoaren arabera egokitutako furgoneten edo ibilgailu berezien bidez egindako elikagaien eta edarien salmenta da hauxe. Jarduera aldizkakoa edo noizbehinkakoa izango da eta udal-baimenean jasotako tokian edo tokietan egingo da.

2.- Elikagaien salmentan, aurrean aipatutakoaz gain, ibilgailua nola prestatuta dagoen eta zein xehetasun dituen deskribatu beharko da, arategi tekniko-sanitarioei dagokienez. Elikagaien kaleko salmentak izaera berezia du eta, ondorioz, Ordenantza honek kaleko edozein salmenta-motatarako ezarritako baldintzez gain, aplikagarri diren arategi espezifikoek ezarritako baldintza tekniko-sanitarioak eta bestelako baldintzak ere bete beharko ditu salmenta-mota horrek. Interesdunak hori guztia jaso beharko du eskaera egiterakoan, eta halako produktuak maneiatzeko beharrezko titulazioa eduki beharko du.

Baimena emateko eskatutako baldintzak betetzeaz gain, eskaera egiten dutenek honako agiri hauek erantsi beharko dizkiote eskabideari: ibilgailuaren zirkulazio-baimena, berau erabiltzen duenaren gida-baimena eta dagokion IATa igaro izana egiaztatzen duen agiria.

Jarduera aldi behinekoa izango da. Udal-baimenean jasoko da salmenta non egingo den eta baimenaren indarraldia zein den.

## **VII. KAPITULUA: ESPAZIO PUBLIKOAN EGINDAKO BESTE SALMENTA BATZUK**

### **12. artikulua.- Artikuluen salmenta automatikoa edota jolas-makinak**

1.- Arau orokor bezala, debekatuta dago espazio publikoa okupatzea mota guztietako artikulua saltzeko diren edozein motatako makinak instalatuta.

2.- Debekatuta daude ere jolas-aparatuak. Salbuespenez, ordea, organo eskumendunak egoki baderitzo, horrelakoak jartzea baimendu ahal izango du, instalatu nahi diren espazio publikoko antolakuntzak hala ahalbidetzen duenean, oinezkoen ohiko ibilbidean trabarik egiten ez dutelako.

### **13. artikulua.- Tokiko merkataritza azokak. Noizean behin merkataritza- edo ostalaritza-establezimenduak hedatzea.**

1.- Gune edota auzo ezberdinetako elkarteek edota merkataritza- zein ostalari-elkarteek salgai-hondarren, denboraldiko hondarren eta antzekoen azokak sustatu ahal izango dituzte. Aukera izango dute ere establezimendu bakoitzaren aurrealdearen aldameneko espazio publikoan feriak egiteko, zenbait gertaera ospatzeko edota, salbuespenez, beste espazio publiko batzuetan ere halakoak antolatzeko. Elkarte sustatzaileak zehaztu beharko du zeintzuk diren ekimenean parte hartuko duten eta

atxiki diren merkataritza- eta ostalaritza-lokalak eta, era berean, ekimena bera xeheki deskribatuko du.

2.- Erakunde antolatzaileak egiaztatuko du dagokion erantzukizun zibileko aseguru-poliza sinatu duela.

3.- Merkataritza- edo ostalaritza-establezimenduek aldeztu aurretik udal-baimena beharko dute haien jarduera espazio publikora hedatzeko. Udal-baimen hori emango da baldin eta eragindako espazio publikoak, irisgarritasunari eta herritarren mugikortasunari dagokionean, horretarako aukera ematen badu eta okupatu nahi den espazio publikoko zatian egiteko den jarduerak dagokion udal-baimena badauka. Hori horrela, baimena eman ahal izango da gertaera egingo den bide publikoan karpak edo antzekoak jartzeko, aldeztu aurretik elementu horiei eta beraien kokapenari buruzko ezaugarriak zehatz-mehatz jasotzen duen dokumentazioa aurkeztuta.

4.- Okupazio ordutegia eta gainontzeko baldintzak, horretarako emandako baimenean zehaztuko dira. Edozelan ere, establezimenduaren luzapenak antolaketa estetiko eta osaketa fisiko zorrotza gorde beharko ditu, pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko eta oinezkoen trafikoa edota desorekak eragitea ekiditeko.

#### **14. artikulua.- Azoka txikia San Faustoko eta San Migeleko Jaietan**

1.- San Faustoko Jaietako azoka txikia jaiek iraun bitartean egingo da Uribarriko errondan eta Matxitxako kaleko luzapenean. Azpiegitura, muntaia eta desmuntaia eskatzaileen kontura izango da. Udalak zehaztuko du eskuragarri dauden postuen kopurua, dagoen erabilera publikoko espazioaren arabera. San Migeleko azoka txikia, berriz, Elizondo kalean jarriko da.

2.- Eskaerak aurkezteko epea urte bakoitzeko uztailaren 15etik 30era arte izango da, eta deialdia Udalaren webgunean eta Iragarkien Taulan argitaratuko da. Udalak ezarriko ditu galdagarri diren aniztasun-irizpideak, produktuen aniztasuna eta berritzea bermatzeko helburuarekin.

3.- Ez dago aurreikusita kaleko salmentarako halako azoka txikiak jartzea udalerriko gainontzeko auzoetako jaietan.

4.- Postuak jarriko dira oinezkoen iragaiteari trabarik eragin gabe.

#### **15. artikulua.- Salbuetsitako hiri-ingurunea**

1.- Salbuetsitako hiri-ingurunea zehazteko, Eusko Legebiltzarrak onetsitako Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak eta indarrean dagoen araudi aplikagarriak ezarritakoari begiratuko zaio.

2.- Basauriko Udalak salbuetsitako hiri-ingurunea onartu du, Bilboko Merkataritza Ganbera Ofizialari entzun ondoren eta ingurune horretako merkataritza-hornikuntzaren eta hornikuntza horrek bertako herritarren kontsumo-gaitasunerako duen egokitasunaren arabera.

3.- Etorkizuneko azoketarako salbuetsitako hiri-ingurunea homogenea eta etengabea izango da eta, betiere, hirigunearen erdialdea barne hartuko du.

4.- Debeku honetatik kanpo geratuko dira horretarako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak araudi bidez zehaztutako azokak, bai eta udalerriko merkatari- eta kontsumitzaile-elkarte esanguratsuenek antolatutakoak ere. Halaber, kanpo geratuko dira Ordenantza honetako 8. eta 13. artikuluetan jasotako noizbehinkako azokak.

#### **16. artikulua.- Debekua**

Ordenantza honetan aurreikusitako suposamenduez besteko kaleko salmenta debekatuta dago udalerrri osoan.

### **I. TITULUA**

#### **KALEKO SALMENTAN BAIMENDUTAKO POSTUAK ETA PRODUKTUAK**

#### **17. artikulua.- Salmentarako produktuak**

1.- Honako produktu hauen kaleko salmenta baimendu ahal izango da: ehunezko produktuak, larruzko produktuak eta oinetakoak, garbiketako eta drogeriako produktuak, loza eta porzelana, apaingarri txikiak, landareak, loreak, imitaziozko bitxiak, esku-lanak, objektuak eta argitalpenak, liburu, disko eta antzekoak eta inguruabar eta baldintza jakinetan baimendutako gainerakoak.

2.- Baimena eman ahal izango da indarrean dagoen araudiak kaleko salmenta erregimenean saltzeko debekua edo muga ez duten produktuak kaleko salmenta erregimenean saltzeko.

3.- Saltzeko baimenen titularrek zehatz-mehatz beteko dute salgai jarritako produktuei dagokien araudi tekniko-sanitarioa, kontsumoko arautegia eta aplikagarri den gainontzeko arautegia.

4.- Debekatuta dago animaliak saltzea.

5.- Produktu-mota bakoitzerako baimenen kopurua mugatu ahal izango da.

#### **18. artikulua.- Salmenta postuak**

1.- Baimen bakoitzean zehaztuko ditu organo eskudunak salmenta-postuen kopurua, horietako bakoitzean egongo diren salgaiak, postuen kokapena, neurriak eta gainerako baldintzak.

2.- Ez da kaleko salmentarik baimenduko azokako gunetik edo posturako esleitutako tokitik kanpo, ez eta horien inguruetan ere.

3.- Baimenen titularrek zehaztutako baldintzetara egokitu beharko dituzte beraien instalazioak. Instalazio horiek, edozelan ere, desmuntagarriak eta modu errazean



garraiatzekoak izango dira eta segurtasun, osasungarritasun eta apaingarritasun baldintzak bete beharko dituzte.

4.- Postuen antolamendu eta neurri zehatzak, baimena indarrean dagoen bitartean, dagokion organuaren ebazpen bidez bakarrik aldatu ahal izango dira.

5.- Udalaren atal eskudunak, azokaren funtzionamendu eta kontrol egokirako, eskalako plano bat izango du; bertan jasota geratuko da postu guztiak nola antolatuko diren, bakoitza bere zenbakiarekin. Zenbaki horiek bat etorriko dira Udalak jada emandako baimen eta txartelekin.

## **19. artikulua.- Elikagaien kaleko salmenta egiteko postuen baldintzak**

1.- Elikagaien kaleko salmentak izaera berezia dauka. Ordenantza honetan kaleko salmenta-mota guztietarako aurreikusitako baldintza orokorrez gain, elikagaiak saltzeko postuek, aplikagarri diren arautegi espezifikotan jasotako higiene- eta osasun-baldintzak eta bestelakoak ere bete beharko dituzte. Baimena eskatzen duenak zehatz-mehatz adierazi beharko du baldintza horiek guztiak betetzen dituela eta, horretarako, memoria teknikoa aurkeztuko du honako hauek jasota:

- Saldu nahi diren produktuak.
- Instalazioaren eta materialen baldintzak eta ezaugarriak.

2.- Titularrak eta, hala balitz, baimendutako pertsonak, baimenak berariaz jasotako baldintzak eta mugak zorrotz bete beharko dituzte eta, edozein kasutan, elikagaiak maneiatzeko titulua eduki beharko dute.

## **II. TITULUA KALEKO SALMENTAN JARDUTEA**

### **20. artikulua.- Kaleko salmentan jarduteko betekizunak**

Basauriko udalerrian kaleko salmentan jarduteko honako baldintza hauek bete behar dira:

1.- Alta emanda egotea Ekonomia Jardueraren gaineko Zergan, dagozkien idazpuruetan.

2.- Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea dagokion erregimenean, eta kuotak ordainduta edukitzea. Pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzaren izena emanda egotea enpresa bezala, langileak afiliatuta izatea eta kuotak ordainduta edukitzea.

3.- Merkataritza-produktuei eta instalazioei buruzko berariazko arautegiek ezartzen dituzten higiene- eta osasun-baldintzak eta bestelakoak betetzea.

4.- Udalaren baimena edukitzea.

5.- Dagozkion prezio publikoak ordaintzea.

6.- Jarduerak dakarren arriskuari aurre egiteko erantzukizun zibileko aseguru edukitzea.

7.- Baimenaren indarraldian zehar aipatutako baldintzen bat betetzen ez bada, baimena baliogabetuko da.

## **I. KAPITULUA: UDAL-BAIMENAK**

### **21. artikulua.- Eskabideak**

Baimenak emateko, interesdunek aurretiaz Alkatetza-Lehendakartzari zuzendutako eskabidea aurkeztu beharko dute eta, bertan, honako hauek jasoko dituzte:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak edota, hala badagokio, izen soziala.
- b) NANA edo IFZa.
- c) Helbidea
- d) Instalazioen eta salgaien deskripzioa.
- e) Pertsona juridikoen kasuan, gainera, baimena erabiliko duen langilearen edo erakundeko kidearen izena, helbidea eta NANA adierazi beharko da.
- f) Tokia, data eta kokapen ordutegia
- g) Instalazioak zenbat metro hartuko dituen

Eskatzaileak baimendutako ordezeko bat izendatu ahal izango du, kaleko salmentan jardun ahal izango duena titularraren baldintza berdinekin.

### **22. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Aurreko artikuluan aipatutako eskabideaz gain, eskatzaileak honako agiri hauek ere aurkeztu behar ditu:

- NANaren, Atzerritarren Nortasun Txartelaren edo, hala badagokio, IFZren fotokopia.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergako alta.
- Gizarte Segurantzaren alta eta kotizazioa ordaindu izanaren azken ordainagiria.
- Pertsona juridikoen kasuan, enpresaren eraketa-agiria, Merkataritzako Erregistroan behar bezala inskribatutakoa. Era berean, ordezkari egiaztatu beharko da zuzenbidean egoki den eta sinesgarritasunez jasota geratuko den edozein baliabide erabilita, edota eskatzaileak berak agerraldia eginda.
- Jardueran langilerik edukiz gero, lan-harremana frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.
- Jardueran titularraren izenean jarduteko baimena duten pertsonen nortasuna egiaztatzen duten agiriak; pertsona horiek postuen titularrek kaleko salmentarako dituzten betekizun berdin-berdinak izango dituzte.
- Elikagaiei dagokienez, janari-maneatzailearen txartela eta, eskainitako produktuaren arabera, eskatu daitezkeen baimen guztiak.
- Titularraren edo baimendutako pertsonaren duela gutxiko karnet-neurriko argazki bi (aldizkako azoketarako).

- Jardungo den instalazioetan hirugarrenei eragindako kalteei aurre egiteko derrigorrezko erantzukizun zibileko aseguru sinatuta izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.

## **II. KAPITULUA: PROZEDURA**

**23. artikulua.-** Eskabidea eta dagozkion agiriak jaso ondoren, Udalaren organo eskudunak agiri horiek eta, hala badagokio, beharrezko diren txostenak aztertuko ditu; gero, eskaera ebatziko du baimena emanaz ala ukatuz.

Eskabidea aurkeztu zenetik hiru hilabete igaro badira ebazpen espresurik jaso gabe, hura ukatu egin dela ulertuko da.

### **24. artikulua.- Eskumena**

Alkatetza-Lehendakaritza izango da baimenak emateko organo eskuduna.

### **25. artikulua.- Baimenaren edukia**

Udalaren baimenean honako hauek agertuko dira espresuki:

Baimenaren titularraren eta haren izenean jardueran aritzeko baimenduta dagoenaren identifikazioa.

- Postuak kokapen eta maiztasun finkoko azokan duen zenbakia edota, beste mota bateko kaleko salmenta bada, jarduteko beste toki edo tokiak zein diren.
- Baimendutako produktuak.
- Jarduteko egunak eta ordutegia.
- Hartuko den azalera.
- Instalazioaren ezaugarriak.

**26. artikulua.-** Aldizkako azoketan saltzeko baimena duten saltzaile guztiei identitate-txartela emango zaie eta, bertan, honako hauek agertuko dira:

- Titularraren eta baimendutako pertsonen (baldin baleude) identifikazioa.
- Salmenta-baimenaren indarraldia.
- Salmentan jartzeko baimendutako produktuak.
- Postuak kokapen eta maiztasun finkoko azokan duen zenbakia edo, bestela, jarduera non, zein egunetan eta zein ordutan egin daitekeen.

Baimena une oro egongo da ondo ikusten den lekuan jarrita, bai eta eskatzen duen agintaritzaren esku ere.

### **27. artikulua.- Baimenaren erregimena**

Baimenek izaera diskrezionala izango dute eta, beraz, Udalak bidezko iruditzen zaionean baliogabetu ahal izango ditu, baimena emateko arrazoiak desagertu direla edota Ordenantza hau eta araudi aplikagarria betetzen ez direla uste badu. Baimena baliogabetzeak ez du kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik sortuko.

Titular berari ez zaio inolaz ere emango epealdi edota azoka beraren barruan kaleko salmentan jarduteko baimen bat baino gehiago.

Basauriko udalerrian bizi diren merkatariak lehentasuna izango dute baimen hauek lortzeko.

Esleipena egingo da Udalak deialdi bakoitzerako zehaztu eta Iragarkien Taulan zein webgunean argitaratutako konkurrentzia-prozeduraren arabera.

## **28. artikulua.- Baimenen ezaugarriak eta indarraldia**

1.- Udal-baimena besterenezina izango da. Baimena dutenek, ordea, hura erabili ahal izango dute iraungitzen ez den bitartean.

2.- Baimenaren indarraldia, gehienez, denboraldiarena edo emandako epearena izango da.

3.- Ordenantza hau indarrean sartzen den unetik aurrera aldizkako azoketan kaleko salmentan jarduteko ematen diren baimenek urtebeteko indarraldia izango dute gehienez, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n iraungiko dira. Edozelan ere, baimen horiek berriztatzeko, urtero-urtero azaroan zehar, esleipenean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko zaizkio udal agintaritzari eskudunari.

4.- Esandako guztiaren kalterik gabe, Alkatetza-Lehendakariak, egoki baderitzo, baimenak baliogabetu ahal izango ditu, baldin eta horiek emateko egondako arrazoiak desagertu badira. Era berean, jarduera aldibaterako etetea erabaki ahal izango da, bide publikoan lanak daudela-eta, zerbitzu publikoen antolaketa dela-eta edota interes publikoko beste arrazoi batzuk direla-eta. Aipatutako inguruabar horiek medio, bestalde, aldi baterako leku-aldatzea edota birkokatzea proposatu ahal izango da.

## **29. artikulua.- Baimena amaitzea**

Honako hauek dira kaleko salmentarako baimena iraungitzeko arrazoiak:

- a) Baimendutako epea amaitzea.
- b) Titularrak uko egitea.
- c) Titularra hiltzea edo, bere kasuan, enpresa desegitea.
- d) Postua besterentzea.
- e) Baimena galtzea dakarren zehapena ezartzea.
- f) Dagozkion zergak ez ordaintzea.
- g) Udalak aurretik jakin gabe eta bidezko arrazoirik gabe, azokara ez agertzea 4 egunetan jarraian edota aldizkako 15 egunetan.

- h) Baimena lortzeko eskatutako baldintza guztiak edo horietakoren bat galtzea.
- i) Aurreko artikuluetan ezarritako baliogabetzea dela-eta.
- j) Kokapen eta maiztasun finkoko azoka kentzea, edo udalerrian kaleko salmentan jarduteko debekua ezartzea.
- k) Baimena berritzeko beharrezkoa den dokumentazioa ez aurkeztea.

Iraungitzea d), e), f) g) h) i eta j) arrazoiengatik gertatzen bada, udal-organo eskudunak berariazko akordioa hartu beharko du interesdunari entzun ondoren.

### **30. artikulua.- Bete gabe geratzen diren tokiak**

Maiztasun eta kokapen finkoko merkatuetan urtean zehar hutsik geratzen diren postuak eskatzaileen artean esleituko dira. Kasu horietan, kontuan hartuko da eskatzaileek ukoen eta bajen kasuetarako ordezkoen zerrendan duten hurrenkera; zerrenda hori zozketa bidez egin zen 1998ko irailaren 30ean, eta 1999ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuraren erabakiz onetsi zen. Eskatzaileek, edozein kasutan, Ordenantza honetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte nahitaez.

Zerrenda agortzekotan eskabide berrietara joko da, zaharretik hasita. Basaurin bizi diren eskatzaileek lehentasuna izango dute.

## **III. TITULUA KALEKO SALTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **31. artikulua.- Eskubideak**

1.- Basauriko udalerrian kaleko salmentan jarduteko udal-baimena dutenek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Baimendutako postuak erabili ahal izango dituzte.
- b) Udal-organo eskudunak baimendutako salmenta-jardueran jendaurrean eta modu baketsuan jardun ahal izango dute, baimenean zehaztutako ordutegian eta bertan ezarritako baldintzak betez.
- c) Baimendutako jardueran aritzeko udal-agintarien eta Udaltzaingoaren babes eskatu ahal izango dute.
- d) Postua jarri ohi den azoka kentzen bada, udal-baimenaren titularrak lehentasuna izango du haren ordezkari antolatzen den azokan beste postu bat lortzeko; hala gertatzen bada, iraungitako baimenaren baldintzak, ahal dela, bere horretan mantenduko dira.
- e) Erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal dituzte saltzeko baimena duten azokako funtzionamendua hobetzeko.
- f) Udalak egindako identifikazio-txartela izateko eskubidea daukate, Ordenantza honetan jasotako edukiarekin.
- g) Postuan titularrak berak edota, hala badagokio, Ordenantza honetan adierazi bezala baimendutako ordezkioak jardun daitezke salmentan.
- h) Postua non kokatuko den jakiteko eskubidea daukate. Postua, nolahi ere, gainazal asfaltatuan, zolatuan edo porlanaz estalitakoan jarri beharko da.

- i) Salmenta baimentzen deneko data eta lekua eskumena duen organoaren erabakiz aldatua ez izateko eskubidea du, ez bada jai edo ospakizun berezi batekin bat datorrelako, inguruabarrak aldatzen direlako edo salbuetsitako beste hiri-ingurune bat izendatu delako. Kasu horietan, aldaketa nahikoa aurrerapenarekin jakinaraziko zaie baimendunei.

2.- Aldizkako azoketan kaleko salmentan jarduteko udal-baimena dutenek eskubidea dute azokatik ahalik eta gertuen dagoen gune batean, salmentaren ondorioz sortutako hondakinak biltzeko esparrua edo edukiontzia egoteko. Eskubidea dute ere, ahal dela, azokan bertan zein inguruneetan komun publikoa izateko.

### **32. artikulua.- Betebeharrak**

Kaleko salmentan jarduteko udal-baimenen titularrek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a)

b) Aldizkako azokako postuak ezin izango dira 09:30ak baino beranduago muntatu.

b) Salmenta postu edo instalazio desmuntagarrietan edota kamioi-dendetan egin behar dute. Postu edo instalazio horiek Ordenantza honetan zehaztutako baldintzak bete behar dituzte, alegia, garraiatzeko eta salmentan jarduteko egokiak izan behar dira.

c) Postuetako titularrek udal-baimena ondo ikusten den lekuan eduki behar dute beti. Hala egiten ez badute, edota baimenean zehazten ez diren produktuak saltzen badituzte, saltokia kautelaz itxiko da, dagokion zehapen-espeditentea hasteko aukeraren kalterik gabe.

d) Saltzaileek, merkataritza-jardueran, unean-unean indarrean dauden arauak merkataritzari, merkatu-diziplinari eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesari buruz xedatutakoa bete behar dute.

e) Saltokietan eskaintzen diren produktuen prezioak argiro adierazten dituzten txartelak eta etiketak jarri behar dituzte. Salgai dauden produktuen prezioa argi eta garbi agertu behar da, arlo horretan indarrean dagoen legedia betez, beti ere. Soltean saltzeko produktuetan edo salneurria janari-edariaren kopuru edo bolumenaren arabera ezartzen denean, neurri-unitate bakoitzari dagokion prezioa adieraziko da. Era berean, artikuluen ale guztiak egongo dira ikusgai, hau da, ezin izango dira horietako batzuk baztertu, aukeratu edo ezkutatu.

f) Postuetako titularrak bertan egongo dira azoka zabalik dagoen orduetan, eta behar bezala baimendutako pertsonak lagunduta egon ahal izango dira, Ordenantza honek aurreikusitakoaren arabera.

g) Behar bezala identifikatuta dauden udal langile edo agintariek dokumentazioa eskatzekotan, eman egin beharko diete.

h) Salmentan jarduten dutenen ibilgailuak ezin dira egon azoka barruan, ez eta saltokiaren ondoan ere: aparkatzeko diren tokietan aparkatu beharko dira. Kamioi-dendak debeku honetatik salbuetsita daude.

i) Zamilanetarako, ibilgailuak azoka barruan aparkatu ahal izango dira, lan horiek egiteko ezinbesteko denboran zehar bakarrik. Edozelan ere, udal-agintaritza eskudunaren argibideak edota saltoki barnean salgaien zamilan egiteari buruzko arautegi espezifikoak beteko dira.

j) Baimenen titularrek salmentaren jarduerarako baimendutako perimetroak eta esparruak errespetatuko dituzte. Toki horiek ezin daitezke egon toki publiko edo pribatueterako sarbideetan, ez eta merkataritza edo industria establezimenduetarako sarbideetan ere.

j) Kaleko salmentan jarduten dutenek nahitaez adierazi behar dute zein helbidetan jasoko diren kontsumitzaileen erreklamazioak, halakorik egotekotan; horretarako, erraz ikusteko moduan jarritako kartelak erabiliko dituzte. Helbide hori salmentaren ordainagiri edo egiaztagirian ere agertu behar da.

l) Pisatzeko eta neurtzeko diren salgaiak eskaintzen dituzten postuek arauzko baskula eta metroak eduki behar dituzte.

m) Salgai guztiak jendaurrean erakusgai jarriko dira hautsarengandik eta kutsadurarengandik behar bezala babestuta daudela bermatzen duten sistemak erabilia, erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko azaleretan eta, gutxienez, lurretik 60 cm-ra. Halakoetatik salbuetsita egongo dira haien bolumen edo pisua dela-eta, baldintza horiek betetzeko arazo larriak dituzten salgaiak eta hurrengo atalean espresuki adierazitako elikagaiak.

n) Elikadura-tresnak izango dira garraiorako ibilgailuak, makineria, erremintak, ontziak, bilgarriak, etiketak eta mota guztietako zigiluak (maneiuan erabiltzen badira).

ñ) Salmentan dihardutenek salerosketaren ordainagiri edo egiaztagiria eman behar diete hala eskatzen duten erosleei. Bertan, honako datu hauek adierazi behar dira, gutxienez:

- Datu pertsonalak edo, hala badagokio, sozietatearen izena.
- NANA, Atzerritarren Nortasun Txartela edo IFZ.
- Kontsumitzaileen erreklamazioak, egotekotan, zein helbidetan jasoko diren.
- Produktuak.
- Prezioa eta data.
- Kopurua.
- Sinadura.

o) Titularren erantzukizuna izango da merkataritza jardueraren ondorioz sortutako zaborrak, ontziak, bilgarriak eta bestelako hondakinak, inguruneetan horretarako jarritako edukiotzietara botatzea. Edukiontzia edo gune horien kokapena ez da aldatuko kaleko salmentako jardueraren eraginez. Postuetako titularrek konponduko dituzte zoladurari, arboladiari, argiteriari edo hiri-altzariei eragindako kalteak.

p) Postuaren instalazioak ondo zainduta mantendu beharko dituzte. Ezin dute ezer saldu esleitutako postutik kanpo, eta geldiuneen arteko korridoreetan ezin daiteke zirkulazioa oztopatu.

q) Jardungo den instalazioek hirugarrenei eragindako kalteei aurre egiteko erantzukizun zibileko poliza sinatu behar dute.

s) Debehatuta dago salgaien eskaintzak aldarrikatzeko bozgorailuak erabiltzea.

Udal-baimenen titularrek, kaleko salmenta baimentzen den azoken funtzionamendu egokia bermatua gera dadin, udal-agintariak edo funtzionarioak Ordenantza hau eta gai honi buruz indarrean dagoen araudia aplikatuz emandako aginduak beteko dituzte.

## **IV. TITULUA ZEHAPENEN ERREGIMENA**

### **I. KAPITULUA: ZAINZA ETA IKUSKARITZA**

#### **33. artikulua.- Ikuskaritza jarduera**

1.- Udaleko organo eskudunak Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta kaleko salmentarako unean-unean indarrean dauden higiene, osasun eta segurtasuneko arauak betetzen direla zaindu eta bermatuko du, beste administrazio publikoek euren eskumenak egikaritzearen kalterik gabe.

2.- Udalak, zaintza-lanetan diharduenean, produktuak, jarduerak eta instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, eta saltzaileei horiei buruzko behar adina informazio eskatu ahal izango die.

3.- Honako kasu hauetan agintaritza ikuskatzaileak postua kautelaz ixtea aginduko du, dagokion espedienteari hasiera emateko aukeraren kalterik gabe:

- Kaleko salmentan aritzea derrigorrezko udal-baimenik gabe.
- Baimendutakoez beste produktuak saltzea.
- Udal-baimena postuan erraz ikusteko tokian jarrita ez izatea.

4.- Espedienteari hasiera ematea agintzen duen agintaritzak salgai dauden produktuak badaezpada bahitzea erabaki dezake, baldin eta produktu horiek kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jarri ahal badute, kalitatean edo kantitatean iruzurra badakarte, faltsututakoak badira, bereizgarririk ez badaukate edo merkataritzarako ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez badituzte.

5.- Espedienteari hasiera ematea ezartzen duen agintaritzak erabakiko du bahitutako ondasunekin zer egin, haien ezaugarriei begiratuta.

### **II. KAPITULUA: PROZEDURA**

#### **34. artikulua.- Eskumena**

Ordenantza honetako xedapenak hausten direnean, eskumena duen udal-organoak ezarriko ditu zehapenak. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzako organoek zehapenak



ezartzeko eskumena izango dute, Merkataritzako Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean arautu bezala.

### **35. artikulua.- Prozedura**

Indarrean dagoen administrazio-prozedurako araudiak eta, are zehazkiago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko Legeak ezarriko du Ordenantza honetan aurreikusitako ez-betetzeengatik zehapenen eta ebazpen horien kontra jar daitezkeen errekurtsoen prozedura.

### **36. artikulua.- Erantzukizuna**

Kaleko salmentarako udal-baimenen titularrak izango dira beraiek edota postuan beraiek baimenduta lanean diharduten pertsonak edo enpresek Ordenantza honetan xedatutakoaren aurkako arau-hausteen erantzuleak.

## **III. KAPITULUA: FALTAK ETA ZEHAPENAK**

### **37. artikulua.- Arau-haustek**

1.- Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2.- Arau-hauste arinak izango dira Ordenantza honetako xedapenak ez betetzea, izaera ekonomikoko ondorio zuzenik ez dagoenean eta kontsumitzaileei kalterik sortzen ez zaienean, ez-betetze horiek arau-hauste larri edo oso larritzat hartzen ez badira.

3.- Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Arau-hauste arinak berriro egitea.
- b) Izaera ekonomikoko ondorio zuzenak dituztenak edo kontsumitzaileei kalte egiten dietenak.
- c) Osasunaren alorreko arau-hauste larriekin batera gertatzen direnak.
- d) Salmentan aritzea derrigorrezko udal-baimenik gabe.
- e) Baimendu gabeko produktuak saltzea.
- f) Ordenantza honetan xedatutako zaintza-lanetan dabilzan udal-agintariak edo udal-langileak eskatutako datuak edota informazioa emateari uko egitea edota horri trabak jartzea; zehazgabea, osatu gabea edo gezurra den informazioa ematea; uko-egitea edo trabak jartzea hertsapenekin, mehatxuekin edota udal-agintari edo udal-langileei eragindako bestelako presio-motekin batera etortzea.
- g) Arauak hausten dituzten jarduerak eteteko eskaera ez betetzea.

4.- Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Arau-hauste larriak berriro egitea.
- b) Osasunaren alorreko arau-hauste oso larriekin batera gertatzen direnak edo gizakien segurtasuna arrisku larrian jartzen dutenak.
- c) Kontsumitzaileei kalte larriak sortzen dizkietenak.
- d) Gehiegizko diru-mozkinak ematen dituzten arau-haustek, edo antolamendu ekonomikoa larriki aldatzen dutenak.

### **38. artikulua.- Zehapenak**

Arau-hauste arinak eta larriak honako koadro honen arabera zehatuko dira, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako araudi orokorrean xedatutakoa aplikatzearen kalterik gabe:

- a) Arau-hauste arinei ohartarazpena eta/edo 750 eurora arteko isuna ezarriko zaie, Euskal Herriko Merkataritza Jarduerari buruzko Legeak ezarri bezala.
- b) Arau-hauste larriei 1.500 eurora arteko isuna ezarriko zaie.
- c) Arau-hauste oso larriei Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek ezarriko dizkiete zehapenak.

### **39. artikulua.- Zehapen osagarria**

Espedientea ebazteko eskumena duen agintaritzak erabaki ahal izango du faltsututako salgaiak, iruzurrezkoak eta bereizgarririk gabeak edo merkataritzarako ezarri diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak bahitzea, zehapen osagarri gisa.

### **40. artikulua.- Zehapenen graduazioa**

Edonola ere, zehapenen gradua ezartzeko, kontuan izango da saldutako produktuen izaera, eragindako kalteak, araua hautsi duenaren asmoa edo araua berriro hautsi izana eta arau-hausteak gizartearengan duen eragina.

### **41. artikulua.- Preskribatzea**

1.- Arau-hauste arinak sei hilera preskribatuko dira, larriak bi urtera, eta oso larriak hiru urtera. Arau-hauste arinak direla-eta ezarritako zehapenak urtebetera iraungitzen dira, arau-hauste larrienak bi urtera, eta oso larrienak hiru urtera.

2.- Arau-hausteen preskripzio-epea, horiek egiten diren egunetik hasita zenbatuko da.

3.- Preskripzio-epea etengo da interesduna jakinaren gainean egonik zehapen prozedura hasten den unean, eta berriro hasiko da zehapen-espedientea hilabete baino luzeago geldirik egoten bada ustezko arduradunak horretan zerikusirik izan gabe.

4.- Zehapenen preskripzio-epea zenbatzen hasiko da zehapena ezartzeko ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik aurrera.

5.- Preskripzio-epea etengo da interesduna jakinaren gainean egonik betearazpen-prozedura hasten den unean, eta berriro hasiko da hura hilabete baino luzeago geldirik egoten bada ustezko arduradunak horretan zerikusirik izan gabe.

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengoa.-** Ordenantza hau indarrean jarri aurretik kaleko salmentarako baimena eskuratu zutenek salmentan jardun ahal izango dute Ordenantza honen babesean, harik eta baimen horien indarraldia bukatu arte. Indarraldi hori, edonola ere, eman

denetik gehienez urtebetera amaituko da, gaur egun Uribarri kalean dagoen azoka egonkorrean saltzeko baimenena salbu.

**Bigarrena.**- Ordenantza hau indarrean jarri aurretik izapidetu eta hura indarrean sartzean izapidetze-aldian zeuden kaleko salmentarako baimena lortzeko espedienteen ebazpenak, Ordenantza honetan xedatutakoari lotuko zaizkio. Hori dela-eta, interesdunei eskatuko zaie beharrezkoa den dokumentazio osagarria aurkezteko.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza hau indarrean sartzen den unetik aurrera, indarririk gabe geratuko dira orain onartzen den testuaren aurka, testu honekin kontraesanean edota berarekin bateraezinak diren maila bereko edo beheragoko mailako xedapenak.

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua xedatutakoaren arabera.

Basaurin, uztailaren 24an. ALKATEA. Andoni Busquet Elorrieta